

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Legarre

DATA: 13/11/2019

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Legarregain 13 zenbakiko bizilagun batek kexa adierazi du igogailuak denbora luzea daramalako hondatuta. Adierazi duenez, martxan jartzen denean, ez da segurua bertan joatea, ez delako erabat ondo ibiltzen.	Arazo bat egon zen falta zen pieza fabrikatzeko orduan, eta pentsatu baino gehiago luzatu zen konponketa. Orain ez dago inolako arazorik igogailu horretan.
Obrak	Salatu du obra-ibilgailuak Legarregain 13ko espaloi gainean aparkatzen dutela, eta traba direla umeen kotxeekin doazen pertsonentzat.	Gipuzkoako Urak entitateak egindako kanalizazio-obretan gertatu zen. Obra amaituta konpondu egin zen arazoa.
Udaltzaingoa	Eskatu du piboteak jartzeko Legarregain kaleko 13 zenbakiaren espaloian.	
Udaltzaingoa	Salatu du ibilgailuak oso azkar pasatzen direla Tarte taberna parean dagoen zebra-bidean, eta adierazi du bisibilitate gutxi dagoela.	Laster seinaleak jarriko dira inguru horretan abiadura 20 km/h-ra mugatzeko, eta ispilu bat jarriko da oinezkoak gurutzatzea errazteko.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Mirafloreserako sarbideetan argiak amatatuta daudelako goi aldean; eta beste kasu batzuetan piztu eta itzali egiten direla.	Otsailean konpondu ziren argi horiek.
Obrak	Auzokide batek salatu du Mirafloreseko goi aldean, 30 metroko zati batean, ez zela galipotik bota, eta, hortaz, asfaltatu barik dagoela.	
Obrak	Bizilagun batek kexa adierazi du zuloak daudelako Arratebiderako sarbideko errepeidean. Dioenez, gainera, kanalizazio-arazoak dituzte.	Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion konpontzeko eta egin dute dagoeneko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Legarre

DATA: 13/11/2019

Saila	Laburpena	
Obrak	Eskatu du konpon daitezela Itzioko bihurguneko asfaltuan dauden zuloak. Adierazi du arriskutsua dela gurpil bat sartuz gero.	Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion konpontzeko eta egin dute dagoeneko.
Udaltzaingoa	Jakinarazi du Itzioko bihurgunean ez dagoela bisibilitaterik. Eskatu du ispilu bat jartzea.	Ez da irizten ispilu bat behar denik.
Obrak	Informazioa eskatu du Mekolarako eta Arratebiderako irisgarritasun-proiektuari buruz.	Proiektua 2021. urterako egongo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du garbitzeko Zozola, Arrajola eta Itzio arteko pasealekua. Adierazi du hustubide asko apurtuta daudela eta gunea sasiz beteta dagoela.	Landa-bideak Debemenek garbitzen ditu urtean behin.
Udaltzaingoa	Eskatu du Arratebiderako saihebidetaren iritsieran dagoen 30 km/h-ko abiadura-seinalea lekuz aldatzeko. Eskatu du bihurgunea baino lehen jartzeko.	
Obrak	Salatu du Ardantza eta Arratebide kaleen arteko eskailera erdiraino dagoela bakarrik konponduta.	Gutxi erabiltzen denez, ez da lehentasuntzat jotzen hura konpontzea.
Alkatetza	Auzokide batek galdetu du ea jar daitekeen argazki bat Legarre 19 zenbakiko fatxadan.	Jarri da dagoeneko.
Obrak	Galdetu du ea instal daitekeen Legarre 19 zenbakiaren ondoko parkea urte osoan erabili ahal izateko.	Ez dago aurreikusita epe ertainera.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Legarre

DATA: 13/11/2019

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Informazioa eskatu du mantentze-enpresekin sinatutako mantentze-kontratuei eta klausulei buruz, zuzentzeko epeak ez badituzte betetzen zigortu ahal izateko.	Udalaren kontratu guztiak eskuragarri daude Udalak duen webgunearen "Kontratugilearen eskakizunak" izeneko atalean (www.contratacion.euskadi.eus).
Obrak	Eskatu du bainu publikoak jartzeko Legarreko garajeen parean.	
Zerbitzuak	Bizilagun batek galdetu du zergatik ez zaizkien adjudikatzen igogailuen eta eskailera mekanikoen mantentze-kontratuak instalatzen dituzten enpresa bereberri.	Kontratazio Legeak eragotzi egiten du.
Alkatetza	Galdetu du ea zer erabilera eman behar zaion Torrekua anbulatorioko eraikinari.	Une honetan, erabilerak zehazteko prozesu parte-hartzaile baten xede izaten ari da; nolahi ere, aurreikusita dago jubilatutako bat kokatzea Amana eta Legarre auzoetarako. Halaber, COVID-19aren ondorioz Eibarko ikastetxeek leku premia dutenez, eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskaini zaio. Gainera, Eibar-Ermua Gurutze Gorriak erabil lezake epe motzera, Eusko Jaurlaritzak sustatutako programak garatzeko.
Udaltzaingoa	Eskatu du "Kamioiak sartzera debekatuta" dioen seinale handiago bat jartzeko Legarreko sarbidean.	Seinaleztapena indartu egin da, galtzadaren albo banatan seinale bat jarrita.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Legarre

DATA: 13/11/2019

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Mirafloreseko auzokide batek kexa adierazi du igoerako aldean arbolek erabat estaltzen dituztelako farolak, argiari eraginez. Inausketa bat egitea eskatu du.	Arbolak eremu pribatuan daude eta, hirigintza aldetik, landa-eremutzat sailkatzen dira; hortaz, Udalak ezin ditu jabeak behartu haiek inaustera.
Obrak	Salatu du Mirafloreseko jaitsieran dagoen arekak ez duela ezertarako balio. Esan du lehen bihurgunean sakonera askoz ere txikiagoa dela arekaren gainerakoan baino, eta, horren eraginez, urak gainezka egiten duela euri asko egiten duenean. Eskatu du puntu horretan arekaren sakonera handitzea.	
Zerbitzuak	Mirafloreseko bizilagun batek eskatu du arekak garbitzeko eta, garbiketa hori sistematikoki egiteko.	Joan den otsailean garbitu ziren areka horiek.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Legarregain 8 zenbakiko bizilagun batek salatu du auzokide askok beren txakurrak eramaten dituztela eraikinaren ondoan daogen 200 m-ko patiora eta kasu askotan txakur-kakak ez dituztela jasotzen, eta, ondorioz, patioa erabiltzen duen edonork, batez ere umeek zapaltzen dituztela.	Antzematen direnean animalien Ordenantza edo garbitasun publikoa betetzen ez duten jokaerak, salaketak jartzen dira.
Udaltzaingoa	Salatu du pertsona askok senideen desgaitasuneko txartelak erabiltzen dituztela, kasu batzuetan senide horiek hilda egonik, haientzako aparkalekuak erabili ahal izateko.	Halako jokaerak antzematen direnean, erretiratu egiten da txartela eta salaketa jarri.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Legarre

DATA: 13/11/2019

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du Legarre inguruan autokarabanak daudelako, urtebete baino gehiago daramatenak mugitu barik. Dioenez, horrek sortzen dituen aparkatzeko arazoak eztabaidak eragiten ditu auzotarren artean.	Trafiko Ordenantzak ez du baimentzen ibilgailuak toki berean mugitu gabe hilabete baino gehiago egotea. Halakoren bat antzemanaz gero, salaketa jartzen da edo ibilgailua bertan behera lagatzeagatik egiten den espedientea hasten da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio iturburuetako iturriak ez liratekeela sailkatuta egon behar "Ur ez tratatu" gisa. Bere ustez, jarri beharko luke ea edateko modukoa den ala ez.	Osasun-agintariek soilik ohartarazten dute ura edateko modukoa den ala ez, behin analisiak egin ondoren. Kontuan izanik iturburuetako urek ez dutela kalitate-kontrolik, eta haien kalitatea eta ur-emaria aldakorra dela, analisisiek ez dute behin betiko balio.